



**Basaburuko Udala**

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

**2018KO URRIAREN 31EAN BASABURUKO UDALAK  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko urriaren 31ean, arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Aitor Arangoa eta Bakartxo Ripalda.

Bertaratu dira baita ere Asensio Indakoetxea Berueteko kontzejuko alkatea eta Iñaki Balda Orokieta Erbitiko alkatea.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

**GAI ZERRENDA**

**1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.**

Irailaren 28ko ohiko akta eta urriaren 30eko ezohiko akta aho batez onartu dituzte bildutakoek.

**2.- Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2018/73 alkate ebazpena irailaren 28koa onartuz M<sup>a</sup> Pilar Mayora Gorrochategik aurkeztutako dokumentazio eta aitorten arduratsua komunean bainuontzia kendu eta dutxa jartzeko eta obra honen EIOZren likidazioa aurrekontua 3.201,80 eurokoa izanik.

- 2018/74 alkate ebazpena urriaren 1ekoa Miren Bajo Palaciosi zuzendua Baimena emanaz eskolan dagoen tailerra erabiltzeko 2018-2019 ikasturtean asteartetan, arratsaldeko 16.45etatik 17.45etara eta 17.50etatik 18.50etara ingelera tailerrak emateko

- 2018/75 alkate ebazpena urriaren 2koa Elena Gaskueri zuzendua egindako eskaera onartuz eta honekin batera 2017/72 Foru Dekretuak arautzen duen lanaldi osoaren laurden baten murrizketa onartu 2018ko urriaren 1etaik aurrera.

- 2018/76 alkate ebazpena urriaren 3ko datarekin, Irentxu Martinenari baimena emanaz polikiroldegia erabiltzeko asteartetan arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara 2018ko urriaren 2tik maiatzaren bukaera arte patinaje ikastaroa egiteko

- 2018/77 alkate ebazpena urriaren 5ekoa Baimena emanaz Laia Vigue Llop-i eskolako psikogela erabiltzeko 2018-2019 ikasturtean astelehenetan, arratsaldeko 16.30etatik 17.30etara haurrentzako yoga klaseak emateko.

- 2018/78 alkate ebazpena urriaren 8ko datarekin Argimalutak enpresari zuzendua Baimena emanaz Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko "YOGA" kurtsoa egiteko 2018-2019 ikasturteko honako egun eta orduetegi hauetan:

\* Astelehen eta asteazkenetan 10:00etatik 11:30etara

\* Astearte eta ostiraletan goizeko 7etatik 8:30etara.

\* Asteartetan 16:45etatik 19:00etara

\* Ostegunetan 18:00etatik 19:30etara

- 2018/79 alkate ebazpena urriaren 8koa Erruki Ezkurrari zuzendua baimena emanaz Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko "Gorputz berrantolaketa" kurtsoa egiteko asteartetan, 19:00etatik 21:00etara

- 2018/80 alkate ebazpena urriaren 8koa Inma Fernandezi zuzendua Baimena ematea Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko Yoga klaseak emateko astelehena eta ostiraletan 16:00etatik 17:30etara eta asteazkenetan 17:00etatik 18:30etara.

- 2018/81 alkate ebazpena urriaren 8koa Marta Huarteri zuzendua Baimena emanaz Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko zunba eta dantza klaseak emateko ostiraletan, 17:30etatik 19:45etara.

- 2018/82 alkate ebazpena urriaren 8koa Cristina De la Torreri zuzendua Baimena emanaz Kultur Etxeko gela handia ikasteko gunek bat bezala erabiltzeko astelehenetan 17:30etatik 19:30etara.

- 2018/83 alkate ebazpena urriaren 8koa Francisca Aranori zuzendua onartuz 2018 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA2420AN matrikuladun autoa baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 14,07 eurokoa izanen delarik.

- 2018/84 alkate ebazpena urriaren 10ekoa Baimena emanaz Maria Jesús Etxauri Etxarriri Itsasoko Mikeleseneko bordan (4 poligonoko 416 lursaila) bi txerri edukitzeko Basaburuko Udal planaren jarduera sailkatuen arauen 1. kapituloko 4. artikulua eta 148/2004 foru dekretuaren arabera.

- 2018/85 alkate ebazpena urriaren 15ekoa Oihanzabal I O Guraso Elkateari zuzendua Baimena emanaz lo kuluxkarako kontratatu behar duten langileak, eskolan bertan lan egiteko.

Bildutakoek jakintzat ematen dituzte alkate ebazpenak.

### **3.Fibra optikoaren azpiegitura egikaritzeko proiektua. PDR dirulaguntza**

Alkateak azaltzen du diru laguntza deialdia berria atera dela eta aurreko urtean diru laguntza berdinerara aurkeztu zen proiektua,( ezezkoa jasoz) berriro aurkeztea proposatzen dela. Deialdi honetan proiektu gutxiago aurkeztuko direnez diru laguntza jasotzeko aukerak izanen lituzkeela udalak aipatzen du.

Proiektuk Udabe Beramendi, Igoa eta Orokieta Erbitiko herrietan fibraren azpiegitura jartzea du helburu, gastua BEZ kanpo 69.500 eurokoa da. Hau guztia ikusita Basaburuko Udal Batzarrak ondoren zehazten den erabakia hartzen du:

- **Onartzea Proqueo empresak egindako proiektua Igoa, Orokieta-Erbiti, Udabe Beramendin fibra optikoaren sarearen azpiegitura egikaritzeko.**
- **Onartzea proiektua egikaritzeko aurrekontua, 69.500 eurokoa BEZ kanpo izanik.**
- **Onartzea proiektu hau Cederna Garalurrek kudeatzen duen diru laguntzetara aurkeztea PDR programaren barruan, 1.1.2 neurrian**

### **4.- Elkarte Merkantilaren estatutuen zuzenketa.**

Alkateak aipatzen du eskriturak Erregistro Merkantilera eraman zirenean akats batzuk zuedela estatutuetan ondorioztatu zuten eta zuzenketa eskatu.

Zuzenketak 18 eta 22 artikuluetan daude, 18. Artikuluan adierazten zen lehendakari ordearen izendapena lehendakariak egiten zuela baina legearen arabera administrazio kontseiluak izendatzen du. Bestetik 22. Artikuluan zehazten dira elkarte merkantilaren kudeatzailearen funtzioak 1955ko ekainaren 17ko dekretuaren 75.artikuluan zehazten direnak eta estatutuen behin betiko onespenean aipatutako 22. Artikuluan ez ziren adierazten funtzio hauek ( kontseiluaren erabakiak exekutatu eta betearazi, kontseiluaren bileretan egon bozkerik gabe eta kontesiluak onartzen dizkion beste funtzionak). Estatutuak horren arabera moldatu dira eta alkateak irakurtzen ditu.

Bildutakoek aho batez ondoko erabaki hartzen dute.

**1.-Onartzea elkarte merkantilaren estatutuen 18 eta 22. Artikuluen zuzenketa modu honetan geldituko delarik hauen transkribapena:**

**a) 18. Artikulua:** Udalbatzako kideek Administrazio Kontseiluan parte hartzen ahalko dute. Kontseilukideek ordezkari garrantzitsua karguetan aritzeko ezgaitasun eta bateraezintasunak izan ditzakete, indarra duen legerian ezarritakoak.

Administrazio Kontseiluko burua Zangozako Udaleko alkatea izanen da, kontseilukidea bada, edo zinegotzi bat, Batzar Orokorrak izendatutako kontseilukidea bada. Kontseiluko buruordea kontseiluburuaren lekuan ariko da hura kanpoan, gaixorik edo karguan aritzeko ezindurik dagoenean, eta haren ahalmen guztiak izanen ditu.

Kontseiluak berak izendatuko du bere idazkaria. Kontseiluko kidea nahiz Kontseilutik kanpokoa izan daiteke eta, hala denean, hizpidea bai baina botorik ez du izanen Kontseiluaren bileretan.

Edozein kontseilukidek proposatuz gero, alkate udalburuak izendatutako teknikari espezializatuek Administrazio Kontseiluaren bileretan parte hartu ahal izanen dute, hizpidearekin baina botorik gabe.

Kontseilukide kargua dohainik da.

**b) 22. Artikuloa:** Administrazio Kontseiluak kudeatzaile bat izendatuko du, zuzendaritza, kudeaketa eta betearazpen arloetako ahalmenak izanen dituena. Gaitasuna berezia duen pertsona izendatuko da.

Kudeatzaileak eginkizun hauek izanen ditu:

–Kontseiluaren erabakiak betetzea eta betearaztea.

–Sozietatearen jarduna zuzendu, kudeatu eta ikuskatzea.

–Kontseiluaren bilkuretan parte hartzea, hizpidearekin baina botorik gabe.

- **Organu bereziari ordezkatzeari administratiboki. Representar administratibamente al**

- Aurrekontu esleipena duten ordainketak agindu.

–Kontseiluak ematen dizkion gainerako eginkizunak.

**2.-Zuzenketa hau eskritura publikora igotzea ondoren Erregistro Merkantilean inskribapena egiteko.**

**3.-Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

### **5.- 2018ko plantilla organikoa. Behin betiko onespina.**

Alkateak dio hasierako onespina uztailaren 27an eman zitzaiola eta abuztuaren 17ko Nafarroko Aldizkari Ofizialean argitaratu, 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen 235. Artikulua jarraituz jendeaurreko epean 15 egun baliodunegon da alegazirik gabe, hortaz batzarrak behin betikoz onartzeko eskumena dauka.

Irakurtzen da 2018ko plantilla organikoa eta behin betikoz onartzen dute aho batez ondoren zehazten den 2018ko plantilla organikoa eta argitaratua izan dadin agindu Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

### **2018KO PLANTILLA ORGANIKOA**

ZBKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA TALDEA	SARBIDEA	Osagarriak	Hizk. profila	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M. %3,54 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean

02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik
03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%46,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%25,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Hutsik
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Hutsik
07	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa		B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

## IZENEN ZERRENDA

### FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTU A	MAILA	ZERB. ONART.	GRADU A	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Elena Jaunarena	Gaskue Administrari laguntzailea	C	2000-03-28	3	%12, %21,54	Jardunean	%66,67

### ALDI BATERAKO ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA A	ZERB. ONART.	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Patxi Biurrarena Barrenetxea	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011-11-01	%12, %42	Jardunean	%100

### ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
M <sup>a</sup> Cruz Azcona	Garbiketa zerbitzua	E	2006-01-01	%46,37	Jardunean	%60,50
M <sup>a</sup> Begoña Muguruza	Garbiketa zerbitzua	E	2006-01-01	%25,74	Jardunean	%63,51
Jaione Osacain	Haur eskolako zuzendaria	B	2017/09/01		Jardunean	%100
Amaia Barberena	Haur eskolako hezitzailea	C	2017/09/22		Jardunean	%100
M <sup>a</sup> Paz Echeagua	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	E	2017/11/02		Jardunean	%100

Gai ordenetik kanpo presazko beste gai bat egonik bildutakoek aho batez onartzen dute gai ordenean sartzea.

### **Aizarozko soroetako 2.000 m<sup>2</sup>ren enkantea**

Alkateak azaltzen du 2017. Urtean enkantera atera zela Aizarozko 32. Lursaileko 2000 m<sup>2</sup> horiek Basaburuko Kontsumo Sareak kudeatzeari utzi zionean. Aipatutako urtean esleitu zen baina esleipendunak kontratua moztu zuen eta hortaz proposatzen da berriro enkantera ateratzea.

Irakurtzen da baldintza plegua, honen arabera baloraketa egiterakoan, baztertze arriskuan dauden pertsonak lanpostua sortzen badute 5 puntu jasoko dituzte, lursailaren kudeaketatik ateratzen den onura baztertze arriskuan daudenei bideratzen bazaie 4 puntu eta auto kontsumorako proiektu kolektiboak 3 punturekin.

Proposamenak aurkezteko epea abenduaren 20a arte finkatzea erabakitzen da eta enkantearen publizitatea bando bidez kontzejuetan eta web orrian egitea ere.

Basaburuko Udal Batzarrak ondoren zehazten den erabakia hartzen du:

**-Aho batez onartzea Aizarozko 10. Poligonoko 32. Lursaileko 2.000 m<sup>2</sup> ren lehiaketa arautzen duen baldintza plegua.**

**-Onartzea proposamenak aurkezteko abenduaren 20an bukatuko dela. Proposamenak Basaburuko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dituztelarik.**

### **6.-Moziok.**

Alkateak Emakumeen Indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren barruan NUFK-etik bidalitako mozioa irakurtzen du, ondoren transkribatzen dena:

**“AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Azaroaren 25ero, indarkeria matxistaren egiturazko izaera nabarmentzen dugu, horixe baita gizonezkoek emakumeengan dituzten botere-harreman asimetrikoen adierazpenetako bat. Egitura patriarkalari lotzen zaion indarkeria da, emakume eta gizonen arteko desberdinkeriak sortzen eta birsortzen dituena bizitzaren esparru guztietan eta adin-tarte orotan.

Genero-desparekotasuna gaur egun gertatzen den giza eskubideen urraketarik iraunkorra den heinean, aurten hil dituzten emakumeen kopurua bihurtu nahi dugu arretagune, egunez egun etengabeko jario baten moduan entzuten dugun hori.

Garai batean oinarrizko aldarrikapena izan bazen ere, emakumeen kontrako indarkeria dela medio hil dituzten emakumeak zenbatzea ohiko bihurtu da. Datu kuantitatiboak edukitzea lorpena izan zen, arazoaren larritasuna neurtzeko bide eman baitzuen, eta hartara, arazoa desagerrarazteko politikak diseinatu eta baliabideak bideratzeko.

Aitzitik, hil dituzten emakumeen zenbaketa amaigabearekin ohituak garela dirudi, are, sobera ohituak, ematen baitu jada ohikoa dela guretzat ia egunero gizon batek emakume bat hiltzea. Ia-ia egunero izaten dugu erasotuak, mehatxatuak diren emakumeen berri, beren askatasuna mugaturik ikusi eta beldurrez bizitzera kondenatuak direnena.

Hori, gizarte demokratikoetan, onartezina, jasanezina eta eramangaitza da: **EZ DIRA KOPURUAK BESTERIK. GEURE BIZIAK DIRA.**

Zenbaki bakoitzaren giblean emakume bati etendako bizia dago. Proiektu eta ilusioz beteriko bizia, sekula berriz biziko ez dena.

Urtero, urtarrilaren 1ean, emakumeen aurkako indarkeriagatik hil dituzten emakumeen kontagailua zerora jartzen da, eta horrek galarazten du ikustea genero-indarkeriak, gure gizartean den desparekotasunaren adierazpen ankerrenak, 947 emakumeren biziak eraman dituela estatu espainiarrean 2003az geroztik, eraildako emakumeen zenbaketa egiten hasi zenetik, alegia.

Horregatik, modu kolektiboan, toki-entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:

GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexista mota orori.

GURE KONPROMISOA, Administrazio Publiko garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, zaugarritasun-egoeren eta emakume zein neskatoen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira; eta gonbita egin nahi diegu hala gobernuari eta erakunde publikoari nola nazioarteko entitateari eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten.

GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakumeei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatoei.

ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumeei haien askatasuna eta autonomia erabiltzen eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

## **7.- Batzordeen informazioa.**

### **-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.**

Azaroaren 3-4ko asteburuan Gartzarongo pilota txapelketako final erdiak izanen dira eta hurrengo asteburuan finalak. Aurten emakumeak ere izane eman dute txapelketa

### **-Euskara Batzordea. Aitor Arangoak ematen du informazioa.**

Urriaren 1ean Euskara Mankomunitateko batzarra egin zen eta bertan 2018ko aurrekontua behin betikoz onartzeaz gain, onartu zen ere euskaltegiekin sinatzen den hitzarmenean aldaketa bat. 1000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan ez da 5 ikasle izena emateko derrigortasuna bete beharko taldea diru laguntza jaso ahal izateko. 3 eta 4ko taldeak onartuko dira maila berean talde bat egonik beti ere eta diru laguntza portzentualki jasoko dute.

### **- Hezkuntza Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.**

Caixako dirulaguntza ez dutenez onartu, eta patioaren eraberritzea zintzilik geldituko den Hezkuntza Batzordeko proposamena izanen da 2019ko aurrekontura begira batzorderako 5.000 euroko partida onartzea, aurreikuspen horrekin aipatutako proiektua burutzeko.



### **-Ogasun Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.**

Urriko fakturretan aipatzekoak Apeztegi berriko 1. solairuko obraren zertifikazioak aurkeztu direla eta obra bukatua dagoela. Bestetik lan aholkularitzarako Biderka enpresak aurrekontu bat aurkeztu zuen baina nahiz eta merkexegoa izan ez zen onartu egun dagoen aholkularitzarekin konten dagoelako udala.

### **8.- Informazio orokorra.**

- Banda zabalaren proiektua 2019. urterako uzteko eskaerari Toki Administrazioiko Departamentuaren baiezkoa.

-Aralar Musika eskolak urriaren 30eko Batzar Orokorrerako informazio, Basaburuari dagokion ekarpena 16714,16 euroko izanen delarik.

- Desfibriladorea. Gizarte batzordean aztertzen ari dira desfibriladore bat udalak erostea eta planteatzen da kontzejuei ere luzatzea proposamen hori kontzeju guztietan izateko makina bat. Desfibriladora erabiltzeko formakuntza jaso beharko da. Gaia aztertzen jarraituko da batzordean.

### **9.-Errege-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.